

GOIAZ!

Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka
2012
Apirilak 19-20

FORMAZIOA LANERAKO AUKERA!

Prestakuntza arloko eskaintza
Enplegu Zerbitzuak
Ekintzaileentzat Zerbitzuak
Tailerrak eta hitzaldiak
Aparatuak eta esperimenduak
Zozketak

- **NORENTZAT?** Ikasle, langile eta langabetuentzat. Formazio edota lan bila dabilenarentzat.
- **ZER EGONGO DA?** Lanbide Heziketako ikastetxeak, formazio akademiak, hainbat enpresa eta enplegu zerbitzuren informazio stand-ak, hitzaldi eta tailerrak, eta makina eta esperimenduak.
- **ZERTARAKO?** Lanbide Heziketaren berri eman eta eskualdeko formazio aukerak plazaratzeko.

ANTOLATZAILEA



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Nafarroa etorbidea, 17 - behea
20500 ARRASATE-MONDRAGON (GIPUZKOA)
Tel.: 943 793090 Fax.: 943 796772
garapen-agentzia@debagoiena.net www.debagoiena.com

www.facebook.com/goiazdebagoiena

EUSKADI *Goia ezazu* GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATUA ETIA TURISMO SAILA DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

enabaketa merkataritza sozialak spri
Sociedad para la transformación competitiva

Non: Kultureteko klaustroan, Arrasate.
Noiz: Apirilak 19 eta 20an
Azoka ordutegia: 09:30-13:30 eta 16:00-18:00

Apirilak 19, osteguna

09:30 Hitzaldia: EKINTZAILE GAZTEEN ESPERIENTZIAK (EU)
Goiena Sport Kirol Zerbitzuak / Belun Argazkiak / Alet Taldea
_____ Kultureteko Areto Nagusian

11:00 Hitzaldia: "ATZERRIRA LANERA JOATEKO AUKERAK"
- Europa, zure aukera (European lan egiteko informazioa) (ES)
>> Violeta Morcillo, Lanbideko EURES aholkularia.

- Negozioak Txinatar erara. Zortzi urteko esperientzia abiadura handiko herrialdean.
>> Jokin Laspiur (Mondragon Taldeko Asiako Erosketen Arduraduna) (EU)
_____ Kultureteko Areto Nagusian

18:00 Hitzaldia: "LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK DEBAGOIENEAN" (ES)
Ikasle eta enpresetako giza-baliabideen arduradunekin LHri buruzko mintzaldia.
_____ Kultureteko Areto Nagusian

Apirilak 20, ostirala

- **EKINTZAILETASUN TAILERRAK** Garaion-en eskutik


10:00 PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK: LANBIDERATZEKO BESTE AUKERA BAT (EU)
Zer dira Profesionaltasun Ziurtagiriak / Nola lortu / Noiz eta nola eskatu
>> Gloria Gonzalez Marco (Enplegurako Lanbide Heziketaren Azpisistema Integratzeko Teknikaria- Lanbide)

- **ENPRESA ETA FORMAZIOA (EU)**
Enpresetan formazioa gauzatzeko eta langileen kualifikazioa hobetzeko dauden egungo aukerak azalduko dira.

- Eskaintza irekia (Lanbide eta Hobetuz)
- Lan Esperientziaren bidez Lanbide Gaitasuna Egiazatzeko Egitura
- Gizarte Segurantzaren Prestakuntza Hobarien sistema (Fundación Tripartita)
- D.N.F.: Enpresen formazio beharren diagnostikoa.
>> (Aretxabaletako Lanbide Eskola eta Miguel Altuna Institutua).


12:00 LAN-ELKARRIZKETA NOLA PRESTATU: AURKEZTU ETA KONBENTZITU (ES)
>> Nork emana: Arrasateko LANBIDE bulegoko orientatzaileek.
- Iraupena: ordubete
- Izenematea: 943 79 30 90 / debagoiena.goiaz@gmail.com

ARRETA PERTSONALIZATUA aurrez ordua eskatuz, zalantza profesionalak argitzeko edota interesatzen zaizun zentro edo titulazio bat ezagutzeko zentroko arduradun/irakasleren baten eskutik.
Deitu **943 79 30 90** edota idatzi debagoiena.goiaz@gmail.com helbidera.




Iñaki Riviere

"Lanbide Heziketak enpresarekin duen lotura nabarmenduko nuke, unibertsitate ikasketekin konparatuz"



Jose Fernandez

"Lan arloan hobetzeko ikasi nuen goi mailako heziketa zikloa Miguel Altuna institutuan"




Gorka Cid Luaces

"Lanbide Heziketa unibertsitatea baino askoz praktikoagoa da; denbora laburrean askoz gehiago ikasten da"



Rosa Maria Casado Dopazo


"Lanbide Heziketako praktikek lan-mundua ezagutzen laguntzen dute; gero zerekin topo egingo duzun jakiteko aukera duzu"



Monsef Amzaouri

"Goi-mailako zikloan teoria asko ikasten da, eta enpresa asko ere ezagutu ditut"

PARTEHARTZAILEAK AZOKAN





LASTER LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA GUREAN!

- **NORENTZAT?** Ikasle, langile eta langabetuentzat. Formazio edota lan bila dabilenarentzat.
- **ZER EGONGO DA?** Lanbide Heziketako ikastetxeak, formazio akademiak, hainbat enpresa eta enplegu zerbitzuren informazio stand-ak, hitzaldi eta tailerrak, eta makina eta esperimentuak.
- **ZERTARAKO?** Lanbide Heziketaren berri eman eta eskualdeko formazio aukerak plazaratzeko.
- **APIRILAK 19 eta 20an, Kulturaten, Arrasaten**



DEBAGOIENOKO MANKOMUNITATEA

“Lanbide Heziketak enpresarekin duen lotura nabarmenduko nuke, unibertsitate ikasketekin konparatuz”

Lanbide Heziketaren azoka egingo dute apirilaren 19an eta 20an. Iñaki Riviere margolariak, unibertsitatean Arte Ederrak ikasketak burutu ostean, Eraikuntza Metalikoan goi mailako heziketa zikloa egin zuen, Aretxabaletako Lanbide Eskolan. Bere esperientzia kontatu digu.

Zer dela eta hasi zinen Lanbide Heziketa ikasten?

Margolari lanetan nenbilela egonkorragoa zen zerbaiten bila hasi nintzen, margotzeari utzi gabe. Momentu hartan lana izatea errazagoa zen, baina konturatu nintzen, zerbaitetan espezializatu beharra zegoela; bestela, lan motzak izaten ziren. Inguruan industria aktibitatea nagusi denez, arlo industrialeko zerbait aukeratu nuen.

Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa?

Inem eta Hobetuz-en bidez bi soldadura ikastaro egin nituen lanean hasteko. Ikastaro horietariko bat Aretxabaletan izan zen, eta bertako irakasle batek animatu ninduen Eraikuntza Metalikoan goi mailako zikloa egitera. Izena eman eta astebetara lanerako deitu zidaten.



Zer eman zizun Lanbide Heziketak?

Enpresatik gertu dagoen formazioa da. Praktikak eraikuntza metalikoko enpresa handi batean egin nituen hiru hilabetez. Asko ikasi nuen eta bertan lanean gelditu nintzen beste sei hilabetez. Praktikan jarri nuen ikasketetan ikasitakoa, baina baita aurretik lanean hartutako jakintza ere.

Zer nabarmenduko zenuke?

Lanbide Heziketak enpresarekin duen lotura, unibertsitate ikasketekin konparatuz. Lanbide Heziketan formazioa jasotzen duzu, eta bukatzeko praktikak egiten dituzu, enpresara hurbiltzen zara...Esango nuke Lanbide Heziketa lan merkatura lotuago dagoela unibertsitatea baino, edo behintzat nik egindako ikasketetan horrela ikusi dut.



LANBIDE HEZIKETA - ENPRESA

- Ikasketa orduen %25 inguru enpresan bertan ematen da.
- Enpresetako praktikek lanmerkatua eta enpresen beharrak ezagutzeko aukera ematen dute.
- Ikasle asko praktikak egin dituzten enpresan bertan gelditzen da lanean.

ESKAINITZA ETA ESKAERAREN LOTURA

- LHko ikasleek lana topatzeko batzabesteko denbora 26,7 eguneko da (2008ko promozioa). Unibertsitateko ikasketak dituztenek 8,5 hilabete behar dituzte lan esanguratsu bat topatu arte.

LANBIDE HEZIKETA - UNIBERTSITATEA

- Espainian, unibertsitateko matrikulazioen %8,3-a Lanbide Heziketatik datozen ikasleek dira.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

“Lan arloan hobetzeko ikasi nuen goi mailako heziketa zikloa Miguel Altuna institutuan”

Lanbide Heziketaren azoka egingo dute apirilaren 19an eta 20an. Jose Fernandez aretxabaletarrak FP2 ikasketak egin zituen Aretxabaletako Lanbide Eskolan bere garaian, eta Copreci-n hasi makinari. Aurrerago Erregulazio Sistemaren Goi Mailako Heziketa ziklo bat egin zuen Bergarako Miguel Altuna Institutuan. Egun Ederlan-eko mantentze-lanetarako talde-burua da.

Zer dela eta hasi zinen Lanbide Heziketa ikasten?

Makinari nenbilen Copreci-n, eta galdetu nuen mantentze-lanetarako zein aukera nituen. FP2 automozio ikasketak nituen eginak eta erantzun zidaten beharrezkoa zela goi mailako heziketa zikloa izatea. Horregatik, GMHZ bat ikasten hasi nintzen, 33 urterekin.

Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa?

Bidea zehaztuta neukan, enpresaren exijentzia zelako. Miguel Altunara joan eta informazioa eskatu nuen, eta gero gainerako guztia antolatuz: familia-bizimodua, laneko ordutegia...



Non egin zenituen praktikak?

Ederlan-en, lau orduko praktikak; gauzez Copreci-n lan egin eta gero joaten nintzen. Ez neukan egin beharrik baina jendea ezagutu nahi nuen, erremintak, arazoak...

Lanera begira onurarik izan du Lanbide Heziketako ikasketak egin izanak?

Zalantza barik. Nik mantentze-lana gura nuen eta goi mailako heziketa zikloa egin nuen arlo profesionalean hobetzeko. Baita barne-promozioaren bidez lortu ere.

Zer hobetuko zenuke Lanbide Heziketan?

GMHZan behar den guztia ikasteko bi urte gutxi da; hiru urtetara luzatuko nuke. Eta praktikak hasieratik jarri, hainbat egunetan enpresara joanda, horrek segurtasuna ematen duelako lanean.

GOIAZ!

Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

2012
Apirilak 19-20

LASTER LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA GUREAN!

*Formazio eskaintza
Enplegu zerbitzuak
Ekintzaileentzako zerbitzuak
Tailer eta hitzaldiak
Esperimentuak eta lehiaketak...*

- **NORENTZAT?** Ikasle, langile eta langabetuentzat. Formazio edota lan bila dabilenarentzat.
- **Zein gairen gaineko hitzaldi edo tailerrak egongo dira?** Atzerrian lan egiteko aukerak, Lanbide ziurtagiriak, Lanbide Heziketako esperientziak, Ekintzaile gazteen esperientziak, eta lana bilatzeko elkarriketak nola prestatu, besteak beste.
- **APIRILAK 19 eta 20an, Kulturaten, Arrasaten**



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

“Lanbide Heziketa unibertsitatea baino askoz praktikoagoa da; denbora laburrean askoz gehiago ikasten da”

Gorka Cid Luaces eibartarrak, unibertsitate ikasketak hasi zituen baina bukatu baino lehen Lanbide Heziketa egitea erabaki zuen. Orain Arizmendi Ikastolan dihardu, Eraikuntza Proiektuak goi-mailako zikloko bigarren mailan.

Zergatik hasi zinen Lanbide Heziketa ikasten?

Burgosen Arkitekтура ikasten egon nintzen bi urtez, eta zerbait laburragoa egitea erabaki nuen.

Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa?

Lagun asko dauzkat Lanbide Heziketa ikasten eta niretzat ezaguna zen. Eraikuntza arloa gustuko nuen, eta argi neukan eraikuntzarekin zerikusia zuen ikasketa egingo nuela. Interneten informazioa topatu, eta oso gustura nago.

Zer eman dizu Lanbide Heziketak?

Lanbide Heziketan bi urtetan ikasten duzuna ikasteko denbora gehiago behar duzu unibertsitatean. Unibertsitatean ikusten nuen ikasgai asko espedienteak betetzeko zeudela, eta gero lanerako edo bizitzarako ez zutela balio. Lanbide Heziketa askoz praktikoagoa da, denbora laburrean gehiago ikasten da.



Zer egin zaizu gogorra, eta errazena?

Unibertsitatean ikasitakoarekin oinarri handia nuen, adibidez, fisika arloan. Bestalde, ahalegin handiagoa egin behar izan dut marrazketa programak erabiltzen ikasteko. Hori berria izan da niretzat. Lanbide Heziketan teoria ematen da, baina era praktikoago batean: enpresetara bisitak egin, enpresa arlokoen esperientziak ezagutu, obratan egon diren akatsak ezagutu.... Gainera, martxotik ekainera praktikak egingo ditut Bergarako enpresa baten.

Eta, etorkizunean zer?

Aukera bat da unibertsitate bueltatzea, baina momentuz ez daukat asmorik. Dena den, gustura jarraituko nuke eraikuntzaren arloan ikasten.



LASTER LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA GUREAN!

*Formazio eskaintza
Enplegu zerbitzuak
Ekintzaileentzako zerbitzuak
Tailer eta hitzaldiak
Esperimentuak eta lehiaketak...*

- **NORENTZAT?** Ikasle, langile eta langabetuentzat. Formazio edota lan bila dabilenarentzat.
- **Zein gairen gaineko hitzaldi edo tailerrak egongo dira?** Atzerrian lan egiteko aukerak, Lanbide ziurtagiriak, Lanbide Heziketako esperientziak, Ekintzaile gazteen esperientziak, eta lana bilatzeko elkarrizketak nola prestatu, besteak beste.
- **APIRILAK 19 eta 20; Kulturete; Arrasate**



www.facebook.com/goiazdebagoiena



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

“Lanbide Heziketako praktikek lan-mundua ezagutzen laguntzen dute; gero zerekin topo egingo duzun jakiteko aukera duzu”

Rosa Maria Casado Dopazo arrasatearra goi mailako Administrazio eta Finantza Heziketa zikloa ikasten ari da, lehenengo mailan, 50 urterekin eta ilusio handiz. Horra heltzeko, ordea, ibilbide luzea egin behar izan du.

Urte batzuk daramatzazu ikasten. Zergatik erabaki zenuen ikasten hastea?

Urte askoan lana eta familiako negozioan idazkari lanak bateratu ditut. Lanak behera egin zuenean, zerbait egitea pentsatu nuen. Ez nituen jarraitu nahi gaztetan bukatu gabe utzi nituen Elektronikako ikasketak, eta behetik gora hasi nintzen.

Zein ibilbide jarraitu duzu Lanbide Heziketako goi mailako ziklo bat egiteko?

Miguel Altunan ofimatika ikastaro bat egin nuen, eta handik Helduen Heziketa Zentrora joan nintzen. DBHko titulua eta unibertsitateko 45 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu nuen. Iaz, goi mailako heziketa zikloetarako sarbide-proba egin nuen.

Zergatik Lanbide Heziketa eta ez unibertsitatea?

Nik nahi nuena zen gauza motz eta praktikoa. Lanbide Heziketako prak-



tikek lan-mundua ezagutzen laguntzen dute, eta gero zerekin topo egingo duzun jakiteko aukera duzu.

Zer eman dizu Lanbide Heziketak?

Asebetetze handia da nire adinean ikasketak jarraitzeko gai naizela ikustea. Gainera, ikaskide gazteen artean egotea egokitu zait, eta oso pozik nago. Bestalde, urte askoan lanean egon ondoren, alabak berriro hasi ditu ikasketak.

Ikasketak bukatzerakoan lanean hasteko asmorik badaukazu?

Zikloa egiten hasi arte lanean eta ikasten jardun dut, baina orain ikasketetan zentratuta nago. Ez nabil ikasten lan egiteko, erronka hutsa da. Ez dakit lanik aurkitzeko balio duen, gazteak ni baino askoz prestatuago daudelako.



LANGILE ETA LANGABEENTZAKO HITZALDI INTERESGARRIAK

“LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK DEBAGOIENEAN” APIRILAK 19, OSTEGUNA (18:00)

Ikasle eta enpresetako giza-baliabideen arduradunekin LHri buruzko mintzaldia.

“PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK: LANBIDERATZEKO BESTE AUKERA BAT. ENPRESA ETA FORMAZIOA”

APIRILAK 17, ASTEARTEA (18:00),
gazteleraz.

APIRILAK 20, OSTIRALA (10:00),
euskaraz.

Enpresetan formazioa gauzatzeko eta langileen kualifikazioa hobetzeko dauden egungo aukerak azalduko dira.

“LAN-ELKARRIZKETA NOLA PRESTATU: AURKEZTU ETA KONBENTZITU”

APIRILAK 20, OSTIRALA (12:00)

Aurrez izena eman.

ARRETA PERTSONALIZATUA zalantza profesionalak argitzeko edota interesatzen zaizun zentro edo titulazio bat ezagutzeko zentroko arduradun/irakasleren baten eskutik. Ordua eskatzeko, deitu 943 79 30 90 telefonora edo idatzki debagoiena.goiaz@gmail.com helbidera.



www.facebook.com/goiazdebagoiena



DEBAGOIENERAKO MANKOMUNITATEA

“Goi-mailako zikloan teoria asko ikasten da, eta enpresa asko ere ezagutu ditut”

Monsef Amzaouri marokarra da, Tetuangoa, eta 21 urte ditu. Bere herrialdean Lanbide Heziketako Fabrikazio Mekanikoko erdi mailako ziklo bat egin zuen, eta orain Aretxabaletara etorri da, ikaskekin jarraituz.

Zer dela-eta etorri zara Marokotik Aretxabaletaraino goi mailako ziklo bat egitera?

Nire nahia Pulbimetalurgia ikastea zen, eta Espainia mailan Aretxabaletan bakarrik eskaintzen dute ziklo hori. Baina talderik sortu ezenez, eraikuntza metalikoen zikloa aukeratu nuen.

Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa?

Nire amaren bitartez. Bera Letretan lizentziaduna da eta txikitatik ikasi du Espainiako hezkuntza-sisteman. Berak ondo daki Marokoko eta Espainiako hezkuntza-sistemen arteko aldea. Marokoko hezkuntza-sisteman Ekonomia ikasten hasi nintzen, baina emailtzeekin konforme ez, eta gaztelaniaz nekienez, amak proposatu zidan Tetuanen dagoen Lanbide Heziketako Juan de la Cierva institutu espainiarrean ziklo bat egiteko. Amaren proposamena onartu nuen,



nik 17 urte besterik ez nuen, eta orain pozik nago hartutako erabakiarekin.

Zer azpimarratuko zenuke Lanbide Heziketan?

Batez ere goi-mailako zikloan teoria asko ikasten da, eta enpresa asko ere ezagutu ditugu, egin ditugun bisitetan. Oraintxe praktikak egiten ari naiz, esperientzia hartzen, eta horri buruz oraindik ezin dut askorik esan.

Orain Italiara zoaz, Leonardo programaren bitartez, ezta?

Bai. Bertan enpresa on batean asko ikastea espero dut. Jende berria ezagutuko dut, hizkuntza eta kultura berri bat.

Zein asmo duzu etorkizunean?

Ingeniaritza Mekanikoa ikastea gustatuko litzaidake.